

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

LANTZETA BERE ERRETOREZARRA

Danak dakiguna da, erri oneri bere inauterik izen aundia eman diotela. Gure azkeneko anaiarteko guda azteririk bizirik zegoen oitara eta inguruetako errietatik ikaragarriko gaztedia biltzen zuten. Orduan Pedro Miguel Arizkun Arizko txistularia bizi zela zetorkien. Gerrate ondoren inauterik debekatu zituzten. 1943 garren urtean baimena berexi batekin egin zituzten bakarrik, Julio Jaro Baroja gizon jakintsuaren bi-

tertez 1965 urtean berriro zuten. Urrengo urtean xeetasun guztiak ondo bildu eta berriro ondorean pelikula bat egin zuten. Ortao ondo orsitzten naiz antzen gizon gizon saila, José María Iribarren, María Elena Arizmendi, Manuel Lekuona eta abar. Diputazioak ere amabost mila pezetekin laguntzen die. Gaur ludi osoan ezagutzen dute ta merezi du ikustea, la urtero ikusten degula, aldiro ederrago iduritzen zaigu. Lantzeko

inauterik gauza ederra ta arrigarria dira Euskalerrizantzat. Gizaldietan oitara au gorde duten gizonak zerbaite berezia dutela aitortu bearra degu. Azkarak, indartsuak, alaiak, langileak eta gogorak dira, baita arrotzari arerra ona egiten dakitenak. Izan Lantz ez die asko lagundu, baina eko lapurrak. Emen bizi ziran gukardak batzuek, gizonak zaindu bearean, ikaragarriak k'o eriotzak egin zituzten. Gertara ura Iribarrenek erderaz jasoz zuan. Emengoak, lapur aiek etzizala Lantzekoak diote.

Emengo gizonen izakera, bein erri ontan entzundakoak zerbaite esan nai du. Orain urte mordoak gotzala etorri zitzaizen eta joaterakoan be-billan sartu zanean, alka-teak bere laguntzaileari esan zion euskeraz, «saldu diagu astoa».


Erria oso polita degu. Belateko bidetik bizpau kilometro egiten ditugula eskubira dago. Zelai batean, landa ta soro ederrez beteak arkitzen degu. Aurrena, eliza ager tzen zaigu, gero kale luze bat, etxe galanteak, bizpau enparantza, beste aldera erre ka ta zubi zar bat gainean eta inguruan mendiak ipar aldera batez ere. Antxe zegoen nauko txuri Okiln tontorra, aintzaxago Sayoa. Len gaitzara zara bertatik zijo-kion Belateko lepora. Gaur esan degun bezala errege bidetik baztertua dago.

ELGANBO burni urezko urak ditun iturria alpatu bearra degu. Nunbait burni ugari izaki mendi oitan. Eliza, dorre sendo luze batekin arrosa kolorekoa da. Koro-nio ta Zipriano santuen izena darama. Aldare nagusian Santa Barbara'ren iduri barro-

ko ona dago. Batalo ponteaz zara erromaniko gotiko bi-tartekoa dauka ta koro apian egurrezko ilen etxolak oso politak daude. Orain erri ontan 44 sendi bizi dira, 170 bizilagunekin. 1910 garren urtean 344 bizilagun zituan. Beti elitzetxo asko bizi ziran, Baserritarak aberatsak ditugu; etxe bakoitzean 30 bei inguruan. Ba daude 30 berebil berri dituzte. Gaitzara baso aundiak dituzte. Gaitzara batzuek Ultzama ta Iruñan lanean dabilte.

Aspaldi Teobaldo H erregeak Iruñako San Ximin eruzaren lege berexiak eman zizkion 1264 garren urtean.

Emen erri ontan 55 urten erretore bezala egonda ko apaiza euskaldun idazlearen izena, alpatzea merezi du, Erasmo Garro Lekunberri'ko semea. 60 urte apaz bezala bete zituan eta Lantz'en 1965 garren urtean il zan, Argia ta Zeruko Argia aldizkarietan euskeraz idazten zuan, Iruñako apaiztegia euskeraz erakastera gerra aurretik eraman nai izen zuten. 1930 garren urtean tagrifian idazten ondo ikasi zuan. Elitzari ona genuen. Bere etxeko ateak Jesusen irudia euskerazko agurrakin egina ipiñi zuan, oraindik antxen dagona. Ba zituan kuademo esko da-nak euskeraz idatziki. 1935 garren urtean elizkizunetan goizean oraindik itzaldiak euskeraz egiten zituan; elitzetxo asko nola zeuden Meza nagusia erderaz idazten zan. Garizumako kristauakibidea zarreri beti euskeraz ematen ziran. Euskeraz elizan asko abestutzen zuten, aurrak berri-erderaz. Azkozez geroago oraindik Amabirjinari euskeraz kantatzen zioten, baita gu rutzibidea kalean eta «Gozu-



Lantz (Aida Argazkia).

zuk Maria» kanta, askok ba dakite gaur.

Erretore onen ilobak Diputazioan goi mailan lana egiten duan gizonak esaten zidan «Nere osabak asko maite zuan bere erri auzi. Orrelako gizonak bai eman diotela bizi aberatsa erri txiki auzi.

Eta euskeraz nola dago gaur? Urte txarrak nola izan ditugun, era bat makaldia. Emen beti 10 edo 12 elitzetxo zeuden ta eiek galdutako euskeraz. Adifako gizasemeak danak ba dakite. Zarrak musan euskeraz ibiltzen dira jolasen Gazteak Ikusten dituztenean, zerbaite ulertzen dute-nean. Parra eiten diete. Prin-

cipe de Viana aldizkaria batzuek antzen dute. Zarra oien-tzet euskeraz indar aundia du. Pertijena etxeko Eusebio Inintak, bezperatara elizara joan ta, lo artu ondorean amet-setan ala omen zion, «lau enbido. Ordago, Iduki». Ondoa danak parrez, jakina.

Aurrak ta gaztetxo geie-nak ez dakite ezetxorez. Gipuzkoar sendi gazte bizi da ostatuan era bat euskeraz mintzatzen zirenak. Gizona ar tzei Egokien dagoen. Bere inauterik gondetzen ditula, erri onek Olaguek ondoan egin duna, euskeraz ber-pitzen alegindu bear luke.

LATXAGA



Lantz Erriaren Inazura (Aida Argazkia).

AXULAR SARIA

IPUIA

Omen zen neska bat herri batean eta egun batean eritu zen. Egon zen hiru ilabete erri gatzean kalenturain. Pena hartzen zuten etzuela mezik aitzia, diruik gabe zaola etzuela lanik iten. Egun batez sendatu zen ta atra zen kanpora, bazaien bide batean, arpatu zuten gizon gazte bat beltzez beztie eta erran zion:

«Zuk naski nai duzu lana».

«Bai behar dut».

Erran zion gizon gazte harek gateko karrika artara, igateko bigarren pisura. Neska harek jo zuen atea, atra zen mezteki bat elegantexkoa. Neska harek erran zion:

«Zuk nai duzu neskatz bat serbitzeko?»

Erran zion baietz nai zuela.

«Norik erran dazut?»

«Arpatut gizon gazte bat beltzez beztia, harek erran dat tortzeko hunet».

«Pasa zaite barnera».

Eta gero gan ziren salara. Han solasean aiziren, eta ikusi zuten kuadro bat paretan eta erran zion:

«Harek erran daut tortzeko hunet».

Maztekiak erran zion:

«Hure nere semea da hiru urte hilla».

Eta neskataz arrituta gelditu zen.

Felisa Elizagorri —12 urte.
Elizondoko Konzezionisten Eskolako.

IPUIA

Behin batean neska bat joan zen mendira, orduan ikusi zuten neska bat galduta eta erran zion mutlak:

Nahi duzu etorri nerekin?

Eta erran zion, «Bai».

Joan ziren ibiltzera pixket eta mutila aitzien hartzen gaitzaurak eta urrek eta belarrekin sua egin eta arrotziak prexitzeko. Han baziren oliuak eta artu zuten lau arrautz eta neskak hartu zuten platanok eta gan zuten etxera. Eta han zegoen bere aita eta ama eta jarri ziren arras konten eta gero gan ziren bazkaltzera denek base-ri batera eta hau egia bazan sartu dedilla kalabazan.

Elizondoko Ikastolako
JAIME ETXENIKE, 7 urte

GURE IKASTOLAK (XII)

ERABAKI JORRATUA

Garai zailak izan ditugu Ikastolen jokabidean, eta gaur gogora ekartzen dudan hau ez zen hoberena. Erre-xago izango litzake ez aipatzea. Egiazen izenean, halare, esan behar dago. Biharko egunean kondaira egiteko hor geldituko da.

Aurreko Diputazioak hartutako, Ikastolen «Patrona-toa» sortzen zuten erabakia ez zuten burutik jaso. Prin-cipe de Viana-ko gure batzordeak prestatu, idatzi eta agin-tarie jaso ondorean, ez zen bere bidez herriz Principe de Viana-ra itzuli. Ez genuen ilabete askoz gehiago haren herririk jakin.

Ilabete askoren buruan, jotzen hasia zen. Ordainketak ikusirik gure jendea lur egoten hasia zen. Bazeinikela atzeratuak, etorkizunean itxaropen gutxi, ispetoreen al-deirik aurpegi txarrak eta gure agintarietan jokabide ar-girik ez.

Erabakia, ezkenean, ez zen «Boletinean» agertu eta atzera bota zutela esan zitzaigun. Besterik gabe geure etxera joateko prest gauden; baina, ez zela komeni zio-ten. Jakinik hutsaren pare zela, hantxe jarraitu genuen ixil-ixilik.

Udan

1972. Abuztuaren hamabostean, Andra Mari egunean adierazi zuten Iruñeko egunkariak, denek dakiten Dipu-tazioaren urratsa. Euskeraren sailak zuten eginkizun gu-zia, aldizkaria ez bada, Irakaskintzara aldatzea erabaki zuten. Guk ezer ez genekien. Herriko mutik batak adierazi zidan erri DIARIO DE NAVARRA-K zuzerrena.

Biramonean zen «Euskal saileko» lagunak biduriko dena uztzen ginuela jakinaraztea. Guri berria etortziko bidetik, eman genuen guk geure asmoaren idazkia.


Udazkena

Asko ziren gertaeren berri jakin nahian guregana zetozenak. Harriturik joaten ziren ezer ez genekielako ent-zutean. Batzuek ez zuten sinestari nahi ere.

Egun batez, gure agintariak Madrilen zirela jakin ondorean, TVE-lik ikasi genuen Diputazioak irakaskint-zako eskubideak berriro zizuela eta, biramonean egunkari guziz jaso zutena irakurri ere bai.

Nere ustez, hau da itzuliaren hasiera. Hemendik da-toze giro berri baten oinarriak, eta mesede onik eman le-zake gure artean. Denbora gutxiaren buruan eman zuten Diputazioak, Geroak esango du zenbatetarikoa ballatu dugun inoiz ezagutu ez genuen giro ona.

SAGI



EUSKALERRIAN BARNA



«ARTIZA» Euskal Poesia Saria

Iruñeko Karremengo Ama Birginaren karrikan «Artiza» delako liburu denda bat du-gu. Aurtien bere izen berbe-rekin deituta «Euskal Poesia Sariketa» bat antolatu du. Euskeraz idatzitako oler-ki bikainak Euskal Herri txo-ko guzietatik bildu ziran. Mahiburuak (Saturtegi, Ingaray eta Diez de Ulzurrun jonek) bere erabakia hone-ko moduan eman zuten:

Lehenengo Saria, iru mila pezetakoa, «Amets bat edo beste» izeneko poesiak iraba-zen. Berezioz, MA-NEX ERDOZAINCY-ETXEHART da; nafartarra da beraz Fran-tzi aldeko Nafarroko Dona-ghaleko herrian sortu eta bizi.

Bigarren Saria Gipuzkoako Zestu herrian bizi dan ARI-AZKUNE MENDIA jaunak bereganatu zuen «Mingotz eta bero» izeneko olerkari-ekin. Bigarren Sari hau li-buru miltzo polita bat zan.

Biel eta «Artiza» liburu dendako jabe nere gores-men eta zorionak.

«Graziaren Euskerazirrena» euskeraz Iruñan

Iragan berri dan Martxo-ko laugarrenean Aita Jesuiten Elizan gure Nafarroko Zain-dari dan abieXreko Frantzis-ko Saindu ari eskaintako «Graziaren Euskerazirrena» euskeraz asi zan. Bederatzi-uren hau egunero ematen

den euskal Meza-ren ondo-rean errezatzen da. Beraz hile honen 12 egunean buka-tuko da. Ohar bat eman be-harrezkoa da: Datoren Igen-dean Bederatzirrena ez da Aita Jesuiten Elizan erreza-tu. «Dazan Jaiero emanten den euskal Meza-ren ondo-rean baizik. Ordua: jesuiten Elizakoa arratsaldeko zazpitan eta «Damas Apostólicas» en Elizarena gaubeko zortzi ta erdian.

Azkenean «Gora dezagun guztiok. Kantua dezan da.

Beste euskal Meza bat Iruñean

Iruñeko «Servicio de Pasto-ral Vasca» deitutakoak (Iru-ñeko Arzapezpikuaren men-dean dagona) Martxo 10 egunetik asita Aita Eskola-pios en Elizan euskeraz emandako Meza bat antolatu du. Meza hau bereziki Iruña eta bere inguruetako herrie-tako gazteak eskaintu eta zuzendua da. Ordua: gaube-ko zortzietan. Egunka: Larun-bateoro.

Puxkanaka puxkanaka gure Iruñean euskal Mezak ugari sortzen ari dira.

Euskal Parrokia bat Iruñan

Iruñeko «Euskal Pastoral» delakoak bi hizkuntza idat-zitako orriak zabaltu dute be-

den euskal Meza-ren ondo-rean errezatzen da. Beraz hile honen 12 egunean buka-tuko da. Ohar bat eman be-harrezkoa da: Datoren Igen-dean Bederatzirrena ez da Aita Jesuiten Elizan erreza-tu. «Dazan Jaiero emanten den euskal Meza-ren ondo-rean baizik. Ordua: jesuiten Elizakoa arratsaldeko zazpitan eta «Damas Apostólicas» en Elizarena gaubeko zortzi ta erdian.

Oraindik ere eliz serbit-zuak.

1) Iruñean ematen dira Mezak euskeraz.

2) Euskaldunentzat «Parro-ki ordeko» sortu ahi du-gu; Egiazko parroki baten serbitzu guzkiekin nahi genu-ke sort ezazi: umeen kristau bide irakuspiera, zaharagoen kristau bidea ere bai, Sakra-mentutako eskubidea, gai-xoen laguntza, eta abar.

3) Parroki ko «onulariak» aukeratu nahi ditugu, bere lana bete dezaten. Parroki-ko Batzar honetan apazak, pra-leak eta beste herriko kristau-ak badira, «Eliz Onulari Sai» honek euskerazko eliz lana begiratu eta bere gain hartzen du. Horrela Iruñeko euskal Eliz lanaren alderdi osozaila da.

4) «Apostoladutza Saila» sortu eta atondu nahi dugu. Gazteak ziran zelai zabalean diran aldiketak ere bai: herri jakintzak, herri kirolak, fol-klore...

5) Euskal eliz lanaren zaindariak idatzitako ja-ri dugu. Zaintzaketak lana hobeki egiteko beharrezkoa zaigu.

Iruñeko euskaldun guziet-adietaz nahi diegu idatzkarit-

za hori lanian ari dela. Tokia: Dormitateria karrikan, 1 (Iru-ñean jakina). Telefonua: 226207.

Egunero arratsaldeko 8 ta-tik 10 etaraino ofizina hau irikie izanen da. Euskal He-rraren adiskidetak jotzen dugu, esku zabalka lagundu-ko diguten ustean. Iruñeko

Eliz Baruti osora ahalik ge-hiena nahi dugu zabaltu zaitzalekela lana.

Beraz badakizute Iruñeko euskaldunak eta Euskaltza-leak zer egin behar duten: Zure diruak eman «Servicio de Pastoral Vasca» delako honen laguntzako. Dormi-teria karrikan eta lehenengo

numeruan egunero arratsal-deko zortzietatik amarrata-raino zuen zar egonen dira berri eta xhetasun gehiago emateko xhesta eta zure urte-roko diru laguntza eraman dezazuen.

Lagundu denok biotz eta esku zabalez!

IKUSLE

XIX garren mendeko California-ko euskal Astekaria

Joan diran artikulotan, Euskalherria aipatu aldizka, ritik, beste zati batzu nai di-tugu eman berri ere, nahiz herriak zahartu ere izan.

TEHACHAPI-KO BERRIAK

Ezda Californian eskual-dunik izan behar, nun ez-duen aditu edo bera Teha-chapi-n izan. Badakigu LOS ANGELES-etan bezala bat gure herritar ez dela Esta-do guzian, eta ongi karkula-tuz uste dugu Tehachapi de-za bigarren euskal herria Estados Unidosetan. Nahiz ezden herri guzian eskual-dun familia bat baizik, gure mintzaila osorik mintzazen dakiena, ezda asterik ez eta egunik, urtean zortzi ilabe-tez, nun ezden eskualdunik atzemaiten karrika punta guzietan.

Artzainek beren probisio-n xerka-haria [erosteko] haren da, eta beren Letren [Letras de cambio] izaltze-ko, larrakeneko ile moztetaz [artile] hunat yin [etorri] behar dute; arrastorju de-nak ere hemen dira. Berra-botean partida baten egui-teko lekua, Tehachapi da.

Beraz pilotaz kestionen, plota partida bat handia jola-turik izan da joan den ila-betean. Biarnesen eta es-kualdun baten artean, eta huna nola gertatu den afe-ra.

Bi biarnesek eskual d un bat desafiatu dute, ezrabo-teen partida baten eguita-rea. Gure herritarra [izana erranagatik ezda samurtu-ko], Banka Beltza, bere bo-rondatek hoberenean hasi da eta bigarren kin zean er-ran dee, enkas balinbada Biarnes guetiago Teha-chapi-n, dener egiten deela [apostua]. Hitzuragaren kin-zean sei baziren Banka-ren kontira, eta hala ere partida aise eraman du. Biba Beto-

kal".

ESKUALDUNEN BERRIAK

«Joanes Tihista gure he-rritar bat uste gabekoan kol-patu da, SOLEDAD CAÑON-ean. Dinamit kartuxa bat bidean arripatu ondoren, su-rat botatu du, zer gaitza lan-yeroa den jakin gabe. Be-rehala lehertu da, lurrean zilo ikaragarri bat eguiten zuelarik eta gure herritarr-a arunt masakratu du. Begui bat kanpoan zuten eta eskumuturra dena xehatua. Midikuek eskua pikatu dio-te [moztu] eta bixta galdut-ko duela uste dute. Hemen, herrian [Los Angeles], Ho-tel des Pyrenées-ean da.

TIROKA

Joan den ilabetearen on-darrean bi frantzes, Gan-chou eta Camou, beren ar-diekien SOLEDAD-eko CA-NON-ean pasatzen ziren. Hamilton deitzen den amerik-a no batek, 5 peso pasai-dre-txotzat galdetu zioten, eta artzainek erreposturik eman gabe, tiroka abiatu zen. Gan-chou-k bi tiro errezebitu zi-l-tuen, bat sabela parez-par-pasatu ziona eta Camou-k bertze biga, kolperik gabe; bala batek ixterean hunkit-zen zuten eta moltasaren gai-nean [sakelaren] lehertu, minirik eguin gabe. Hamil-ton arrastatu izan da eta Korte superior-eraz igo-rria, preso, 4.000 peso fidantza-ren faltan».

Beste numerotik ditugu, berri hauek ekarriko: «BILBAO-n 1893-uztaila. 14. Bilbaoko ondoan, trein bat arras fite [laster] zo-alelarik, mendi zilo bateta-rat erori da. Han berean sei presuna hil dire eta ogoita-hamar itsuski kolpatu, Bil-bao, Biskayako kapitala da.

ESKOBAYO yenerala, hain famatua dena, arras erri-da Mexicon eta midikuek ezdu-

te salbartzeko esperantzarik. Yeneral horrek zuen, Maxi-milian Emperadorez, preso hartu Querétaro-n [geroago afusilaturik izan zena].

BAIONA-n, errearora re-n (agorrraren) 26-an zeren ko-rridak izan dituzte; emazte, ki toreador batak, Jusua Diaz deitzen denak, bere jau-ziez jendea guztia arriu du.

ARTZAINAK ETA GOBERNAMENDUA

Atzo Piarres AINCHANO, Elgart-en artzain bat, Esta-dos Unidos-etako autoritatez arrastatu izan da, zeren zenbait ardi sartzera utzi baitu Gobernamenduko lu-rretan, CUCAMONGA-ko mendietan. Berrikatan Go-bernamenduk zontbeit lur beretzat berexi baitu, eta han sartzen diren artzainak arrastatuak izanen dire. Pia-rres AINCHANOK larunbate goizean ditx fidantzak eman eta berehala libratu dute.

Bainan arratsaldean El-gart haren nautia arrasta-tua izan da, eta fidantzak astehenean emanen ditu. Gobernamenduko legue ho-riek arras bortitzak dire, eta zoin diren lur debekatuak artzainek jakin nahi batut-ze, gure Ofizinarat yitea [planoak] aski dute. Planak [planoak] eta izen guziz [lurren izenak] gure esku-e-tan dire».

[Zontbeit uts gorabeera, joan den mendeko izkiribu horietan, oralko idazleek ere esaldi eta jokera garbi asko aurkiturik ditugu. Funtsean, aldizkarietan agertzen diren artikulot ilun batzu baino euskara naturalago eta ulert-errezago aise, du GOYTINO ezpeletarrak erabiltzen, bere Astekari gogoangarrian. Al-de hortatik behatuz, bazka-kizun dela uste dut, berri ho-rien zaharria. Agian beste aidi batzuek geiago].

A. Apar-ETXEBARNE